



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Gai nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Asuntos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzak 24**

**Vitoria-Gasteiz, 24 de mayo de 2016**

## Lehendakaritza

### JAURLARITZAK AURTEN 30 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUETARA

- **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzaturako 230 proiektu daude abian gaur egun.**

Jaurlaritzaren Kontseiluak oniritzia eman dio garapenerako lankidetzaren proiektuen deialdia egiteari eta guztira 30 milioi euro bideratuko ditu horretarako.

Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako diru-laguntzek Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzaren burutzen duen jardueraren ardatza osatzen dute eta horietara bideratu dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatzen dituen funts gehienak.

Diru-laguntzok hiru modalitate hauetako proiektuak finantzatzeko izango dira:

1. **Garapenerako lankidetzaren proiektuak**, Hegoaldeko herrialde txiroetako pobrezia aurka egiteko. Modalitate horretara bideratuko dira diru-laguntza gehienak: guztira, 24,6 milioi euro, hain zuzen.
2. **Garapen produktiborako, prestakuntzarako eta laguntza teknologikorako proiektuak**, Hegoaldeko herrialde txiroetako pobrezia aurka egiteko zuzenean. 900.000 euro bideratuko dira horretara.
3. Euskal Autonomia Erkidegoan **garapenerari buruz egindako hezkuntza proiektuetarako diru-laguntzak**, munduan desberdintasunak sorrarazten dituzten arrazoiak ulertarazteko eta oraingo gizarte-ereduak eraldatzen herritarren inplikazioa eta konpromisoa sustatzeko. 4,5 milioi euro bideratuko dira proiektu horietarako.

Laguntza horien hartzzaileak EAEko GGKEak izango dira, edota Euskadin ordezkariak dutenak, baldin eta Hegoaldeko herrialdeetako erakunde eta mugimenduekin batera ari badira lanean.

Proiektu bakoitzerako diru-laguntza gehienez ere 600.000 eurokoa izango da eta proiektuaren iraupena bi urtekoa izango da. Honako sektore hauetan kokatuko dira proiektuok: eskubide unibertsialetan, gobernantza demokratikoan eta tokiko boterean, tokiko garapen ekonomikoan, ingurumena babestu eta zaintzean eta emakumeen ahalgintzean.

Gaur egun, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 230 bat proiektu finantzatzen ditu mundu osoan. Horietako gehienak, Euskadin eta honako

herrialde hauetan gauzatzen ari dira: Perun, Bolivian eta Ekuadorren, Hegoamerikan; Guatemalan, El Salvadorren eta Kuban, Erdialdeko Amerikan; Kongoko Errepublika Demokratikoan, Senegalen eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoan, Afrikan; eta Palestinan, Asian.

Eskabideak nola izapidetu eta zein dokumentazio aurkeztu behar den jasota dago <https://euskadi.eus> egoitza elektronikoa eta [www.elankidetza.euskadi.eus](http://www.elankidetza.euskadi.eus) webgunean.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

### EUSKAL TURISMOAREN SARIAK 2016

Jaurlaritzak 2016ko Euskal Turismoaren Sarien deialdia eman du ezagutzera, eta hautagaitzak aurkezteko epea maiatzaren 31tik ekainaren 30era artekoa izango da.

Euskadiko turismoaren garapenean ekarpen azpimarragarria egin duten enpresen jarduera edo pertsonen ibilbide profesionala, oihartzun zabala izan duten ekitaldiak eta udalek, eskualdeek edota elkarteek turismoa sustatzen egindako lana nabarmendu nahi da sari horien bitartez.

Hiru kategoria zehaztu dira jarduketa-esparru hauetan:

- Berrikuntza bultzatzea
- Lehiakortasuna bere jarduera-sektorean
- Lan-ibilbidea

Euskadiko turismo-sektorearekin zerikusia duen jarduera ekonomikoren bat zuzentzen edo kudeatzen duten pertsonak, fisikoak edo juridikoak, eskuratu ahal izango dituzte sariak, bai eta Euskadiko jardun-esparrua duten udal, erakunde profesional, korporatibo edo gremioetakoek ere, dela publikoek, dela pribatuek.

## Enplegu eta Gizarte Politikak

### JAURLARITZAK KOOPERATIBEN LEGE PROIEKTUA ONARTU DU

Angel Toña Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak hala proposatuta, Gobernu Kontseiluak Kooperatiben euskal legearen aurreproiektua onartu du gaur, Legebiltzarrean eztabaidatu aurreko urratsa emanez. Testuak 154 artikuluko, 6 xedapen gehigarri, 2 xedapen iragankor, 5 amaierako xedapen eta xedapen indargabetzaile bat izango ditu, 4 tituluko, 15 kapituluko eta 18 ataleko egitura izanik.

Arau-proiektu berriak ez du ordeztuko egungo kooperatiben euskal legearen oinarritzako egitura eta, ondorioz, ezin daiteke kooperatiba-araudiaren erabateko erreformatzat hartu –ez da kooperatiba sozietate txikien legea aldatzen-, hori bai, testu bakar batean bat-egin direnez aipatutako arau hori 1993an onartu zenetik gaurdaino egin diren aldaketak, eta egindako ekarpen eta zehaztasunak kontutan hartu direnez, testu berriak segurtasun juridikoa areagotuko du kooperatiba-sozietateen barne- nahiz kanpo-harremanetan.

Dena dela, araudiaren zati gehiena aldatu ez den arren, araudi berriaren ekarpen azpimarragarrienak hauek dira: kooperatiba mota batzuen (etxebizitza- eta garraio-kooperatibak) lege-zehaztapena egin da, kooperatiben organo- eta funtzio-erregimenari atxiki ahal izatea bermatzeko; sektorearentzat oso garrantzitsuak diren gaiei heldu zaie, sozietatearen zorren gainean bazkideek duten erantzukizuna kasu; eta administrazioak kooperatiba-jarduerak kontrolatzeko eta sustatzeko egiten dituen lanak egungo esparru juridiko, ekonomiko eta instituzionalera egokitu dira.

Era berean, Jaurlaritzak gaur onartu duen testuak etengabe eta bizkor aldatzen den sozietate-zuzenbideko jarraibide nagusiak barne hartzen ditu, korporazio-gobernuaren arauketa kasu, baita barneko alderdi jakin batzuen autoerregulazioa ere.

Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindaria izan zen Estatuan, 1982an osatu zuenez kooperatiben lege propioa, eta enpresa-eredu horren erreferentzia bihurtu da mundu mailan, ez soilik alderdi kualitatiboan, printzipio eta balio kooperatiboak direla eta, baizik baita kuantitatiboan ere, EAEko ekonomian duen pisuagatik.

EAEri buruzko datu berrienen, zehazki 2014koen arabera, 2.233 establezimenduk osatzen dute kooperatiba-sektorea, urtean 47.322 lanpostu sortzen dituztenak. Sektoreka, lanpostu gehienak, % 57, zerbitzuen sektorekoak dira, % 41 industria-arlokoak, % 2 eraikuntzakoak eta % 0,3 lehen sektorekoak.

Kooperatiba bidezko enpleguak, beraz, EAeko landunen % 5,3 hartzen ditu; hots, 49.848 euro ekoizten ditu enpleguko. Era berean, 2014an, EAeko kooperatibek 2.358.884.955 euroko balio erantsi gordina sortu zuten, EAeko BPGri % 3,5 ekarpena eginez.

Bestalde, kooperatibek 7.060 milioi euro fakturatu zituzten 2014an, zenbateko horren erdia, % 53, industria-kooperatiben eskutik. 2012-2014 aldian berrikuntza-prozesuak gauzatu zituzten EAeko kooperatiben % 26k; EAeko enpresa-ehunaren batez bestekoaren (% 17) bederatzi puntu gainera dago.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### **1,3 MILIOI EURO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARAKO, ELEANIZTASUNERANTZ PROGRAMAREN BAITAN**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, onartu du Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen dituzten itunpeko ikastetxeentzat diru-laguntzak deitzen dituen agindua, proiektu hirueledunak, funtsean, eta eleanitzak garatzeko eta proiektu horien ondoriozko atzerriko hizkuntzetako irakasleen prestakuntzarako 2016-2017ko ikasturtean.

Eleaniztasunerantz programa, irakasleen etengabeko prestakuntzarako Prest\_Gara Planak ezartzen dituen ildo estrategiko nagusienetako batean kokatzen da. Bere xedea irakasleen prestakuntza da, ikasleek komunikazio gaitasun eleanitza garatu dezaten, bi hizkuntza ofizialetan nahiz beste hirugarren hizkuntza batean (ingelesa nagusiki). Era berean, ikasleek aipaturiko gaitasun elebidun edo eleanitz hori, eguneroko testuinguru sozial gero eta konplexu eta anitzagoetan, egoki eta eraginkortasunez kudeatzen jakitea ere bada helburua, bai hurbileneko eremuan, bai mundu globalizatuan.

Nortasun juridikoa eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu edo araudi-harremanak dituzten federazio edo elkarteek izango dute diru-laguntza horiek, 1.332.000 euroko zenbateko globalekoak, jasotzeko aukera. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe eta estatu mailako ikastetxeek osatu ahal izango dituzte federazio edo elkarte horiek baina estatu mailako ikastetxeek osatutakoek Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute egoitza, hizkuntz proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan gauzatu beharko dute, hiru ikastetxe, gutxienez, EAEn izan beharko dituzte kokatuta eta itunpeko gela guztizkoa 50ekoa edo 50etik gorakoa izango da.

2015-2016 ikasturte honetan Eleaniztasunerantz programan parte hartzen ari diren 313 ikastetxe daude orotara Euskadin, publikoak nahiz itunpekoak, eta beraz, euren Hizkuntza Proiektu Eleanitza garatzen ari direnak.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### KONGRESUAK ETA ZIENTZIA BILERAK EGITEKO LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, kongresuak eta bilera zientifikoak egiteko laguntzetarako deia egiten duen Agindua onartu du.

250.000 euroko diru-kopurua duten laguntza hauen helburua EAEn kongresuak eta zientzia bilerak egiten laguntzea da, oso tresna egokiak baitira ideiak eta ezagupen zientifiko eta teknologiko aurreratuak trukatu eta zabaltzeko, prestigio handiko ikertzaile eta irakasleen parte hartzea bultzatuz.

Ekintza hauek 2016 urteko bigarren seihilekoan burutu beharko dira

### 400.00 EUROKO DIRU-LAGUNTZA UNEDI

Gobernu Kontseiluak onartu du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, UNED-i 400.000 euroko diru-laguntza ematea: 96.830,15 euro Gasteizko zentrorako, 113.168,27 euro Bergarako zentrorako eta 190.001,58 euro Portugaleteko zentrorako.

Diru-laguntza hau, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailaren 2016ko aurrekontuetan UNEDentzat erreserbatutako kopurua da eta unibertsitateen artean matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera banatzen da.



## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### **475.000 EURO MUSIKA JARDUERA PROFESIONALETARAKO**

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburuaren proposamenez, 2016 urtean musika jarduera profesionala diruz laguntzeko baldintzak arautzen dituen Agindua onartu du. 475.000 euroko diru kopurua du deialdiak.

Deialdi honek, ondorengo lau modalitateetan biltzen diren jarduerak lagundu nahi ditu diruz: musika-partituren edizio inprimatuak; banakako musika proiektuak; musika ekimen enpresarialak eta musika-programazioa. Laguntza hauen bitartez, euskal musikarien sorkuntza-lana sustatzeko formula bat lortu nahi da eta, bide batez, haien ahalegina aintzatetsita ikusteaz gain, finantzabideak areagotzeko aukera emango dieten beste merkatu batzuk jorratzea.

Joan zen urtean, orotara 52 musika jarduera profesional lagundu ziren diruz deialdi honen bidez: 7 proiektu, musika partituren edizio inprimatuetakoak; 29 banakako musika proiektu; 13 musika ekimen enpresarial; eta beste 13 musika-programazioaren modalitatekoak.

### **EUSKADIKO ARRAUN FEDERAZIOARI 14.735 EUROKO DIRU-LAGUNTZA**

Gobernu Kontseiluak onartu du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Euskadiko Arraun Federazioari 14.735,58 euroko diru laguntza ematea, Legutioko (Araban) arraun zentroaren birgaitze lanen amaiera finantzatzeko.

Diru-laguntza ordainketa bakarrean jasoko Arraun Federazioak, laguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren. Horretarako, laguntza dagokion helburura bideratzen dela ziurtatuko duen txostena eta dokumentazioa aurkeztu beharko ditu (faktura originalak). Dokumentazio hau guztia 2016ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko du.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### **“EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA: BERDINTASUN ERAGILEAK “ GRADU ONDOKO TITULURAKO PRAKTIKAK**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean hezkuntza-lankidetzarako hitzarmena izenpetzea baimendu du, “Emakume eta Gizonen arteko Berdintasuna: Berdintasun Eragileak” gradu-ondoko titulua egiten duten ikasleek kanpoko curriculum-praktika akademikoak egin ditzaten.

Emakume eta Gizonen arteko Berdintasuna Masterreko, EHUk ematen duen titulua, ikasleen hezkuntza-eremuak praktikak egiteko aukera ematea du hitzarmen honek helburu.

Aipatutako praktikak gauzatzea “Hezkuntza-siteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida-planak” jasotzen dituen jardueretako bat da; izan ere, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sustatzen du gida-plan hori, derrigorrezko irakaskuntzari (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), Haur Hezkuntzari eta Batxilergoari zuzenduta dago, eta eskola mistoaren eredu batetik genero-indarkeria eta, hitz batean, jatorria sexismoan duen indarkeria oro prebenitzeko lagungarri izango den hezkidetzaren eskolaren eredu batera aurreratzeko asmoz.

Ikastetxeak hezkidetzaren, berdintasunaren eta genero-indarkeria prebenitzearen arloko gaiari globalki eta estrategikoki aurre egitea du plan honek helburu, ikuspegi hori ikastetxearen kulturara, politiketara eta praktiketara hedatzen eta gaitasun guztiak ikasteko prozesuetan integratzen, elkarriketa, interakzioak, elkartasuna, berdintasuna eta ikasleen arteko berdintasuna ahalbidetuko dituzten metodologiaren laguntzarekin.

EHUko ikasleen praktika akademikoak Berritzeguneetan- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko laguntza-zerbitzuetan aurrera eramango diren terminoak arautuko ditu hitzarmenak.

## Osasuna

**OSASUN SAILAK IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTE ETA ERAKUNDEEI ETA PROFESIOALEN ELKARGOEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO AGINDU BAT ONARTU DU, HAIEN FUNTZIONAMENDUA ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK FINANTZATZEKO**

Jon Darpón Osasuneko sailburuak bere sailaren agindu baten berri eman dio gaur Gobernu Kontseiluari. Agindu horren bidez, diru-laguntzen deialdi bat egin da, osasun-arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteei, osasun-espezialitateetako irabazi asmorik gabeko erakunde zientifikoari eta osasun-arloko profesionalen elkargo ofizialei zuzendua. Helburua haien funtzionamendua eta langileen etengabeko prestakuntza diruz laguntzea da.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak 79.409 € bideratu ditu laguntza-lerro jakin horretara. Osasun-arloko langileen trebakuntza Eusko Jaurlaritzaren osasun-politiken ardatz estrategikoetako bat da, eta ildo horretan kokatzen da laguntza hori.

Laguntzak eskatzeko hilabeteko epea emango da, agindua EHAAn argitaratzen denetik, eta bi jarduera mota finantzatuko dira: alde batetik, osasun-arloko profesionalari zuzendutako prestakuntza-jarduerak eta jarduera zientifikoa ezagutzera emateko ekintzak, Euskadin antolatzen direnak; eta bestetik, langileei prestakuntza eta eguneratze teknikoak ematen dieten edo ikerkuntza sustatzen duten osasun-arloko elkarte eta erakunde horien funtzionamendua.

## Ingurumena eta Lurralde Politika

### **GOBERNU KONTSEILUAK AGINDU BAT ONARTU DU, BIDAIARIEN ETA SALGAIEN GARRAIO PUBLIKOAN JARDUTEARI UZTEKO LAGUNTZA-PROGRAMA BAT EZARTZEN DUENA**

Gobernu Kontseiluak agindu horren bidez arautu du adin handiko garraiolariak, ezintasun iraunkor absolutua edo erabatekoa aitortua dutenek eta baliaezintasun handia aitortua dutenek lanbidea uztea sustatzeko laguntza-erregimena 2016 urterako, hain justu ere, salgaien eta bidaiarien garraio publikoaren sektorean.

Laguntzak finantzatzeko, ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) euro bideratuko dira, baina kopuru hori gehitzeko aukera dago, betiere diru-laguntzak esleitzeko prozedura ebatzi baino lehen, aurrekontua loturaren arabera kontuan izanik eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa; eta horretarako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko beste programa batzuk exekutatzetik ondorioztatzen diren aurrekontu-baliabideak edo aurrekontu aldaketak onartzearen ondoriozko baliabideak erabili ahal izango dira.

Laguntza jasotzeko, honakoak dira betekizunak: eskabidea aurkeztean, edo, bestela, 2016ko urtarrilaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoan 2011ko urtarrilaren 1a baino lehen errolatuta egotea, 63 edo 64 urte izatea, ezintasun iraunkor absolutua edo erabatekoa edo baliaezintasun handia aitortua izatea, azken hamar urteetan salgaien edo autobus-bidaiarien edo bien garraio publikoan jarduteko baimena indarrean eduki izana, Gizarte Segurantzako langile autonomoen erregimenean alta emanda egotea azken hamar urteetan (alta emanda egon gabe gehienez hiru hilabete igaro baditu tarte horretan), salgaien edo bidaiarien errepide bidezko garraio publikoan jarduteari 2016ko azaroaren 30a baino lehen uzteko konpromisoa hartzea eta behin betiko uko egitea titularra den garraio-baimenei, zigor- edo administrazio-zehapenik ez edukitzea eta zerga-betekizunak zein Gizarte Segurantzaren aurrekoak egunean edukitzea.

Errepide bidezko garraio publikoak duen arazoetako bat da jarduera horretan dihardutenen adin handia. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak errepide bidezko garraio publikoan luzaz jardundako profesionalak lanari uztea sustatuko du, horretarako behar duten baliabideak eskainita.

2016ko ekitaldian, ibilgailu arin eta astunak erabiliz egiten den errepide bidezko salgaien garraio publikoaren sektorea da helburua, baita autobus-bidaiarien garraio publikoarena; izan ere, sektore horietan, adin handiko garraiolari askok ez dute beharrezko baliabiderik jarduera lagatzeko. Beraz, laguntza horiek funtzio eskuarki soziala dute. Halaber, ezintasun iraunkor absolutua edo erabatekoa edo baliaezintasun handia aitortua duten garraiolariak barne hartuko ditu laguntzaren estaldurak.

## Ingurumena eta Lurralde Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOKO PROFESIONALEN ETA ENPRESEN ELKARTEAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK EMANGO DITU**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak gaur onartu du deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren eta jarduera osagarrien arloko profesionalen eta enpresen elkarteei, federazioei eta konfederazioei, eta kooperatiben federazioei eta konfederazioei 2016an laguntzak ematekoa. Horretarako hirurogeita hamabost mila (75.000,00) euro erabiliko dira.

Euskadiko garraio-politikaren helburuetako bat garraio arloko elkartegintza sustatzea izanik, Eusko Jaurlaritzarentzat, behar-beharrezkoa da profesionalen eta enpresen elkarten jarduerak eta ekimenak bultzatzea, batez ere, elkarteak osatzen dituzten bazkideen interes profesional eta ekonomikoak erkidegoan, erkidegoaz gaindi eta Europan ordezkatu, babestu eta koordinatzeko direnak, eta garraiolarien lana garatu eta baldintza hobetoetan egin ahal izateko bideratzen direnak.

Diru-laguntzen programa hori hartzen du barnean Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren 2016ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoak. Eusko Jaurlaritzak, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eskutik, errepide bidezko garraioan elkarteak sortzearen aldeko neurri gehiago hartuko ditu, diru-laguntzak emateko sistema bat arautuz.

2016an, honako gastu hauek, gehienez % 50ean, lagunduko dira diruz: garraioaren sektoreko lan-baldintzak eta baldintza sozioekonomikoak hobetzeko azterlan eta prestakuntza-jarduera esperimentalak gauzatzea; bazkideak nazioartekotzea eta garraio-sektoreko erkidegoko, Estatuko edo nazioarteko azokak bisitatzea eta antolatzea; eta elkarteari zein garraioari buruzko albisteak argitaratzea eta hedatzea. Onuradun batek ezingo du inola ere 30.000 eurotik gorako laguntza jaso.

### **GOBERNU KONTSEILUAK PREMIAZKOTZAT JO DU BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAK, «MUNITIBARKO BERREÑO AUZOKO ITURBURUAREN PROIEKTUA» GAUZATZEKO**

Gobernu Kontseiluak premiazkotzat jo du Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak beharrezko dituen ondasun eta eskubide guztiak okupatzea, nahitaezko desjabetze bidez, «Munitibarko Berreño auzoko iturburu deuseztatzeko proiektua» gauzatzeko.

## Ingurumena eta Lurralde Politika

### **GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU DITU SALGAIEN ETA BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO PUBLIKOAN KALITATE- KUDEAKETARAKO ETA INGURUMEN-KUDEAKETARAKO SISTEMAK EZARTZEKO LAGUNTZAK**

Gobernu Kontseiluak onartu du salgaien eta bidaiarien errepide bidezko garraio publiko astunean diharduten enpresetan kalitate- eta ingurumen-kudeaketarako sistemak ezartzea sustatzeko agindua, arloko profesionalen edo onuradunarekin loturarik ez duten kanpo-aholkularien 2016ko proiektuak osatzeko laguntzak arautzen dituena, kalitate- eta ingurumen-kudeaketarako sistemak ezartzeko proiektuen gaineko kanpo-aholkularitzaren gastuei dagokienez.

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepide bidezko garraio publikoan kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzearen helburua zerbitzu-ematean segurtasun, kalitate, gardentasun eta azkartasun handiagoak lortzea da. Alde batetik, garraio-enpresentzat positiboa da, beren egitura zaharberrituko dutelako, zerbitzuak kalitatez kudeatu eta ematea eta bide batez bezeroak gogobetetzea ahalbidetuko dien sistema baten bidez; eta bestetik, erabiltzaileei begira onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzua lortuko dutelako.

Ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzearen helburua berbera da: enpresei aukera emango die ingurunea zaintzearen aldeko konpromisoa islatzen duen sistema eraginkor bat edukitzeko, baita ingurumenean eragin negatiboa izan dezaketen jarduerak, produktuak edo zerbitzuak kontrolatzeko mekanismoak ezartzeko eta ingurumen-arloko lege-baldintzak betetzeko ere, eta hala, garraio-sistema jasangarri bat lortzen lagunduko dute.

Kalitatea enpresa-kudeaketa onaren sinonimo da, eta horrek produktu eta zerbitzu lehiakorragoak izatea esan nahi du. Izan ere, enpresa kudeatzeko erak berebiziko garrantzia dauka hain aldakorra, eta gero eta globalagoa eta lehiakorragoa den testuinguru honetan.

Aginduak hauek ezarpena bultzatzen du: ISO 9001 kalitate-sistema integratua eta ingurumeneko ISO 14001; ISO 9001 arauan oinarritutako kalitate-kudeaketarako sistema; ISO 9001 arauan oinarritutako ISO 14001 arauaren araberako ingurumen-kudeaketarako sistema; ISO 14001 arauaren araberako ingurumen kudeaketarako sistema; EMAS araudiaren araberako ingurumen kudeaketarako sistema; Ekoscan 2004 arauaren araberako ingurumen kudeaketarako sistema; EN-UNE 13816 kalitate-sistema; ISO 39001 arauaren araberako RTS errepideko segurtasuna kudeatzeko sistema; eta UNE-EN ISO 50001 energia kudeatzeko sistema.

Laguntzak finantzatzeko, berrogei mila (40.000) euro bideratu dira.

## Ingurumena eta Lurralde Politika

### **GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU DITU SALGAIEN ETA BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO PUBLIKOAN TEKNOLOGIA BERRIAK ETA SEGURTASUNA AREAGOTZEKO LAGUNTZAK**

Gobernu Kontseiluak onartu du Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide bidezko salgaien eta bidaiarien garraio publikoaren sektorean teknologia-berriak eta segurtasun-sistemak ezartzeko laguntzak zehazten dituena.

Salgaien eta bidaiarien garraio publikorako ibilgailuetan segurtasuneko elementuak eta kontrol- zein kudeaketa-zentro batera konektatutako kokapen-sistemak eta kudeaketa sistemak ezartzeak –esaterako, segurtasun-uhalak eta atxikipen-mekanismoak eskola-garraiara edo adin txikikoen garraiara bideratutako ibilgailuetan– emandako zerbitzuaren segurtasuna, kalitatea, gardentasuna eta arintasuna areagotzeko ditu. Hori, alde batetik, positiboa da garraiolariarentzat, puntako teknologia erabiliz zerbitzua modernizatzeko aukera duelako; eta bestetik, erabiltzailearentzat ere onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzua jasoko duelako.

Aurrerapen teknologikoen aukera ematen dute kalitatea eta segurtasuna handitzeko, merkatuan punta-puntako teknologia duten kudeaketa-, kokapen-, kontrol-, komunikazio- eta segurtasun-sistemak daudenez, ibilgailu-floten kudeaketan eta segurtasunean eraginkortasuna areagotzeko.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren iritzian, laguntza ekonomikoen programa ezartzea komeni da, horien guztien ezarpena ahal beste merkatzeko. Hala, Ana Oregi sailburuak jarduera hauetarako laguntzak arautu ditu: ibilgailu-flotak kokatzeko eta kudeatzeko sistemak ezartzea (GPSak edo antzekoak); bederatzi lagun, gidaria barne, baino gehiagoko salgaien eta bidaiarien garraio publikorako ibilgailu astunetan segurtasuneko elementuak ezartzea, artazi-kontrakoak, istripu-erregistratzaileak eta antzekoak kasu, eraginkortasunez eta segurtasunez gidatzeko; eta segurtasun-uhak eta atxikipen-mekanismo homologatuak erosi eta instalatzea ikasleen garraio publikoan edota adin txikiko bidaiarien errepide bidezko garraioan zerbitzu-ematera bideratutako ibilgailuetan.

Laguntzak finantzatzeko, berrogeita hamar mila (50.000) euro bideratu dira.

## Presidencia

### EL GOBIERNO DESTINARÁ ESTE AÑO 30 MILLONES DE EUROS A AYUDAS A PROYECTOS DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

- **En la actualidad se encuentran en marcha 230 proyectos financiados por la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.**

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno a la convocatoria de ayudas a proyectos de cooperación para el desarrollo que este año suman un total de 30 millones de euros.

Las ayudas a proyectos de cooperación representan el principal eje de actuación del Gobierno Vasco en esta materia y hacia ellas va dirigida la mayor parte de los fondos que gestiona la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

Las ayudas irán dirigidas a financiar proyectos en tres modalidades.

- 1. Proyectos de cooperación para el desarrollo** que contribuyen a la lucha contra la pobreza en países empobrecidos del Sur. A esta modalidad va dirigida la mayor parte de las ayudas, con un monto de 24,6 millones de euros.
- 2. Proyectos de desarrollo productivo, formación y asistencia tecnológica**, vinculados directamente a la lucha contra la pobreza en países empobrecidos del Sur. A esta modalidad se destinarán 900.000 euros.
- 3. Proyectos de educación al desarrollo** llevados a cabo en la Comunidad Autónoma de Euskadi con el fin de fomentar la comprensión de las causas que generan las desigualdades en el mundo y de incentivar la implicación y compromiso de la ciudadanía en la transformación de los modelos sociales actuales. A estos proyectos van dirigidos 4,5 millones de euros.

Las destinatarias de estas ayudas serán las ONGD vascas, o con delegación en Euskadi, que trabajan de la mano con organizaciones y movimientos de países del Sur.

Las subvenciones por proyecto -cuya duración será de dos años- no serán superiores a los 600.000 euros, y los sectores en los que se enmarcarán son: derechos universales, gobernanza democrática y poder local, desarrollo económico local, protección y conservación ambiental y empoderamiento de mujeres.



En la actualidad, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo financia alrededor de 230 proyectos en todo el mundo. La mayoría de ellos, además de en Euskadi, se concentran en Perú, Bolivia y Ecuador en Sudamérica; Guatemala, El Salvador y Cuba, en Centroamérica; en República Democrática del Congo, Senegal y República Árabe Saharaui Democrática, en África; y en Palestina, en Asia.

Las indicaciones de cómo tramitar las solicitudes y toda la documentación a presentar están disponibles en la sede electrónica: <https://euskadi.eus> y en la página web **[www.elankidetza.euskadi.eus](http://www.elankidetza.euskadi.eus)**.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

## Desarrollo Económico y Competitividad

### PREMIOS AL TURISMO VASCO 2016

El Gobierno Vasco hace pública la convocatoria de Premios al Turismo Vasco 2016, cuyas candidaturas podrán presentarse desde el 31 de mayo hasta el 30 de junio.

El objetivo es reconocer la actividad empresarial, o trayectoria profesional, de personas cuya contribución haya sido significativa para el desarrollo turístico de Euskadi. Eventos que por su repercusión, notoriedad o impacto, hayan contribuido de forma significativa al desarrollo turístico de Euskadi, así como la labor de fomento turístico desarrollada por instituciones como ayuntamientos, comarcas o asociaciones.

